



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2017ko IRAILAREN 28an EGINIKO EZ OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2017ko irailaren 28an, Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20.35 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB), Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB).

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDA:

1. Adierazpenak:

- **Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat EH BILDU**

.../...



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA.

Adierazpenak:

- **Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat EH BILDU**

Alkate andreak EH BILDUK igorritako mozioa aurkeztu du. Honela dio:

“Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari atea irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, ASTEASUko Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainera jarri.

3.-Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuako presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri”.

Idazkariak hitza hartu du: adierazpen honetan jasotakoak Udal honek jarraitu behar duen neutraltasun politikoa zalantzan jarri dezake, izan ere, jurisprudentziaren arabera



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

(besteren artean, Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 136/2016, 237/2016, 415/2014, 322/2014 Sententziak) Udalak interes orokorrak modu objetibo batean defendatu behar ditu, legezko onurak aplikatzeko adierazpenak onartzerakoan izan ezik. Horren harira, idazkari honek alkate andreari jakinarazi zion Udaleko balkoian ezin dela estelada jarri - aipatutako sententziekin bat - EH BILDUK aurkeztutako lehenengo testuan jasotzen zen bezala; alkate andreak esandakoa aintzat hartu du eta, horregatik, ez da hori jaso Udalbatzarrari proposatutako adierazpenean.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 20.45 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2017ko irailaren 28an.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea